

Vitoria-Gasteiz

5,2 km | JOAN-ETORRIA MODERATUA | 299m | Walking 1h. 10' | Running 45' | www.walkingandrunning.es

ZALDIARANGO MENDATEA (978m) > BUSTO (978m)



Bidexka Zaldiaraneko mendatetik gertu



Ibilbide honek Gasteizko Mendiak zeharkatzen ditu (hiriburuaren hegoaldean); oso ezaguna da running eta mendi ibilien zaleen artean. Aukera asko daude, Berroztegiatik, Armentiatik zein Ezkibeletik abiatu daiteke eta. Kasu honetan Zaldiarango mendatetik abiatzea hautatu dugu; A-3102 errepidea hartu behar da Berroztegiatarantz. Ibilbidea GR 282 Artzaintzaren naturbidearen seinale zuri-gorriek markatzen dute; naturbide horrek Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Burgosko eta Nafarroako eremu bereziak zeharkatzen ditu (485 kilometro guztira). Pagadi eta ikuspegi ederren artean erraz ikusiko ditugu Zaldiaran eta Busto tontorrak.

Gasteizen Lasarteko ataria kalean A-3102 errepidea hartu Berroztegiatarako noranzkoan. 9. kilometroan Zaldiarango mendateko gaina dago, hor ibilgailua utzi behar da ezkerrean dagoen zelaigunean. Ibilbidea hasteko errepideko eskuineko aldean dauden seinaleei jarraituko diegu.

Zaldiaran mendateko hasierako puntutik erreferentzia beti GR 282 Artzaintza Bidearen seinale zuriak eta gorriak izango dira, eta kasu honetan eskuinera egingo dugu errepidea kontuz igaroz (1).

Lehenengo metroak pinudietan zehar egingo ditugu (2) eta horiek dira aldapa gehien dutenak, baina segituan Zaldiarango tontorra ikusiko dugu, telekomunikazioetarako antena ezagunekin (3). Asfaltozko errepidean igoera txiki bat egin ondoren (4), GR 282 bidearen marka gorriak eta zuriak jarraituko ditugu eskuineko aldean, Zaldiarango tontorra ezkerrean utziz. Bideak aurrera egiten du pagadi artean (5), Bustoren tontorreraino eramango gaituen muino batera arte.



Azken aldapa baten ondoren (6), erpin geodesikora eta Bustoko postontzira (7) iritsiko gara, Zaldiaranen baino bista gutxiagorekin. Nahi baldin badugu markei jarraituz San Migeleraino joan gaitzke; hor ere telekomunikazioetarako antena dago. Bestela Subilla Gasteizeraino jaitsi gaitzke.



Walking & Running ARABA-ÁLAVA

Oraingoan buelta emango dugu eta ibilbide beretik bueltatuko gara (📍 8a), inguru oso atseginean eta zailtasunik gabe (📍 8b), Zaldiarango gailurra berriz ere ikusiz.

Zaldiarango mendateko hasierako puntutik ibilbidea luzatu dezakegu eta GR 282 (📍 9) markei jarraitu ezkerrera egin eta Arrietara igotzeko (992 m), 2 km inguruan dagoena, eta inguruaren bista ederrak dituen.



Interesguneak

- Gasteizko eraztun berdea.
- Eskibeheko gaztelua.
- Armentia basoa.

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.vitoria-gasteiz.org

Salburuko bista eta Vitoria-Gasteiz atzealdean 📍

